



Iturria: *Euskal lan guztiak*, Agustin Kardaberaz (faksimilea).
La Gran Enciclopedia Vasca, 1974.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KardaberazDotrinea.htm>

KRISTIÑAU DOTRINEA

Agustin Kardaberaz

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetze Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**DOTRINA KRISTIANA EDO KRISTIÑAU
DOTRINEA,**

bere Deklaraziño laburragaz: Itande, ta eranzuerakgaz, Aita Asteteren
Librutxorik aterea.

Azkenean arimen salbaziorako bear direan gauzaren batzuk.

GUZIA KURA JAUN, ta Eskola Maisuai Jesusen Konpañiako Aita
Agustin Kardaberazek ofrezietan ta dediketetan deutse.



KRISTIÑAU DOKTRINARAKO SARREREA

Kristiñau fiel guztiak
 dagoz txito obligadurik
 deboziñoa artzera
 euren biotz guztitik,
 Jesus gure argien
 Kurutze Santuagaz;
 bada an ill gura izan eban
 gu atereteagaiti
 gure pekatuen azpiti
 ta arerio gestoti.

Orregaiti bada
 egin bear zara,
 alan zeñatutera
 nolan santiguetara,
 iru Kurutze egiñaz:
 lenengoa bekokian
 Jangoikoak libradu gaitzan
 pensamentu gestoetarik;
 bigarrena aoan
 Jaungoikoak libradu gaitzan
 berba deungeetarik;
 irugarrena bularrean
 Jangoikoak libradu gaitzan
 obra, ta gogo gestoetarik
 modu onetan esanaz:

Kurutze Santearen señaleagati
 geure arerioetarik
 libradu gagizuz
 geure Jaun eta Jangoikoa.

Aitearen, ta Semearen ta Espiritu Santuaren Izenean. Amen.

AITA GUREA

Aita gurea, Zeuretan zagozana: santifikadu bedi zure izena: betor
 gugana zure Erreinua: egin bedi zure borondatea, nolan Zeruan, alan
 lurrean; Egun iguzu gure egunean eguneango ogia: eta parkatu eiguzuz
 gure zorrak, guk gure zordunai parkaetan deusteguzana legez: eta itxi ez
 zeiguzu tentaziñoan Jausten: baia libradu gagizuz gatxerik. Amen.



ABE MARIA

Abe Mariam graziaz betea, Jauna da zugaz, bedinkatea zara zu andra guztien artean, ta bedinkatua da zure sabeleko frutua Jesus. Santa Maria Jangoikoaren Ama, erregutu egizu gu bekatariok gaiti orañ, ta gure erio-tzako orduan. Amen.

KREDOA

Sinisetan dot Aita Jangoiko guziz poderoso, Zeruaren, ta lurren Kriadoreagan; eta aren Seme bakar Jesu Kristo gure Jaunagan, zeñ sortu zan Espiritu Santuaren obra, ta graziaz, Jaio zan Maria Birjiña gandik; padezidu eban Poncio Pilatosen podoren bean, izan zan Kruzifikadua, illa, ta beatua, jatsi zan infernuetara; eta irugarren egunean biztu zan illen arterik; igo eban Zeruetara, eta dago iarririk Aita Jangoiko guztiz poderosen eskumatati; andi etorriko da biziak, eta illak juzgetara. Sinisetan dot Espiritu Santuagan; Elexa Santa Katolikea, Santuen Komuniñoa, pekatuen parkaziñoa, aragiaren erresurreziñoa, bizitza betikoa. Amen.



SALBEA

Salbe Erregiña, Misericordiazko Ama, bizitzea, gozoa, ta esperantza gurea, Salbe. Zuri deiez gagoz Evaren ume deserrituak, negarrez, ta adia-ka zugana suspiretan dogu, negarrezko ibar onetan. Ea, bada, bitarteko gurea, zure begi misericordiazko ok biurtu egizuz gugana; eta deserri au igaro ezkeru erakutsi eiguzu Jesus gure sabeleko frutu bedeinkatua. O guztiz berea! O errukiz bete! O Birjiña Maria gozoa! Erregutu egizu gu gaiti Jangoikoaren Ama Santea, Kristoren promesen diña izan gaitean. Amen.

JANGOIKOAREN LEGEKO AGINDE, EDO MANDAMENTUAK DIRA AMAR

Lenengo irurak dagokaz Jangoikoaren onreari; eta beste zazpirar lagun urkoaren onari.

Lenengoa da Jangoikoa gauza guzien ganean amaetea.
 Bigarrena aen Izen Santuaz juramentu banoan ez egitea.
 Irugarrena, Jai egunak santifikaetea.
 Laugarrena, Aita, eta Ama onretea.
 Bostgarrena, ez iltea.
 Seigarrena, aragiazko pekatuak ez egitea.
 Zazpigarrena ez ostutea.
 Zortzigarrena, testimonio falsorik ez ezartea, ta guzurrik ez esatea.
 Bederatzigarrena, lagun urkoen emazterik ez deseetea.
 Amargarrena, besteen ondasunik ez deseetea.
 Amar Mandamentu onek bitan sartuten dira: Jangoikoa serbidu, ta gauza guztien ganean amadutean, ta zeure lagun urkoa zeure burua legez. Amen.



FEDEKO ARTIKULUA, DIRA AMALAU

Lenengo zazpirar Jangoikotasunari dagokaz; beste zazpirak gure Jaun Jesu Kristo Jangoiko, ta Gizon egiazkoen Gizatasun santuari.

Jangoikotasunari dagokozanek dira onek

Lenengoa, sinistu Jangoiko guztiz poderoso bakar bategan.
Bigarrena, sinistu dala Aita.
Irugarrena, sinistu dala Semea.
Laugarrena, sinistu dala Espiritu Santua.
Bostgarrena, sinistu dala Kriadorea.
Seigarrena, sinistu dala Salbadorea.
Zazpigarrena, sinistu dala Glorifikadorea.

Gizatasunari dagokozanek dira onek

Lenengoa, sinistu Jesu Kristo gure Jauna Gizona danez, sortu izan zala Espiritu Santuen obraz, ta graziaz.
Bigarrena, sinistu jaio zala Santa Maria Birjineaganik, geratuten zala Birjina, semea jaio baño lenago, jaiaketan, eta jaio eskero.
Irugarrena, sinistu artu ebalari eriotzea, ta pasiñoa, gu bekatari ok salbaerren.
Laugarrena, sinistu jatsi zala infernuetara, eta aen etorrera santuen begira egozan Guraso Santuen Arimak atara zituzala.
Bostgarrena, sinistu irugarren egunean illen arterik biztu zala.
Seigarrena, sinistu Zeuretara igo ebela, eta jarririk dagoala Aita Jangoiko guztiz poderosen eskumatati.
Zazpigarrena, sinistu etorriko dala biziak eta ilak juzgetara. Esan gura dau: onai gloria emaitera, zerren gorde zituezan aen Mandamentu Santuak: eta gestoai betiko pena, zerren gorde etzituezan.

KRISTIÑAU DOTRINEEN DEKLARAZIÑO, EDO AZALDUEREA, ITAUNEZ, TA ERAN- TZUTEZ

ITAUNEA: Kristiñaba zara?
ERANZUEREA: Bai, Jaugoikoen graziaz.
ITAUNEA: Kristiñaben izen ori nondi iatorzu?
ERANZUEREA: Jesu Kristo gure Jauna ganik.
ITAUNEA: Kristiñabak zer esan nai dau?
ERANZUEREA: Kristoren Gizona.
ITAUNEA: Zer adituten dozu Kristoren Gizonaz?
ERANZUEREA: Jesu Kristoen Fedea daukana, zeñ dan Bateoan artu ebana, eta bera serbietara agindurik dagoana.
ITAUNEA: Kristiñauen señaleara zeñ da?
ERANZUEREA: Kurutze Santua.
ITAUNEA: Zegaiti?
ERANZUEREA: Zerren Kristo kruzifikaduaren irudia dan, zeñetan erredimidu ginduzan.
ITAUNEA: Zeinbat gisatara Kristiñabak señaleara orrez usaetan dau?
ERANZUEREA: Bitara.
ITAUNEA: Zeñzuk dira?
ERANZUEREA: Zeñatutea, eta Santiguetea.
ITAUNEA: Zer da zeñatutea?
ERANZUEREA: Eskumako orkoroagaz iru Kurutze egitea. Lenengoa bekokian, bigarrena aoan, irugarrena bularrean, gure Jangoikoagaz berba egiten dogula.
ITAUNEA: Erakutsi zelan?
ERANZUEREA: Kurutze Santearen señaleara gaiti, geure arerioetarik libradu gagizuz geure Jaun ta Jangoikoa.
ITAUNEA: Zegaiti zeñatuten zara bekokian?
ERANZUEREA: Jangoikoak libradu gagizan pensamentu gestoetarik.
ITAUNEA: Zergaiti aoan?
ERANZUEREA: Jangoikoak libradu gagizan berba gestoetarik?
ITAUNEA: Zegaiti bularrean?
ERANZUEREA: Jangoikoak libradu gagizan obra, ta deso gestoetarik.



ITAUNEA: Zer da santiguetea?

ERANZUEREA: Eskumako atz biakaz Kurutze bat egitea, bekokirik bularrera, ta ezkerreko sorbaldarik eskumakora. Trinitate guziz Santeari gagozkala.

ITAUNEA: Erakutsi zelan?

ERANZUEREA: Aitearen, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren Izenean. Amen.

ITAUNEA: Señale ori noz egin behar dozu?

ERANZUEREA: Obraren bat asten dogun guzian, edo bearren baten, tentaziño, edo pelliguruan ikusten gareanean: baita bere oeti jagieran, etxeti urtaieran, Elexan sartzeran, jatorduan, eta oera etzitean.

ITAUNEA: Zegaiti orrenbeste bidar?

ERANZUEREA: Zerren beti, eta leku guztian gure arerioak konbatietan, eta persegietan gaituzan.

ITAUNEA: Zer arerio dira orrek?

ERANZUEREA: Demonioa, mundua, ta aragia.

ITAUNEA: Beraz Kurutzeak arerio orren kontra indarra badau?

ERANZUEREA: Bai, Jauna.

ITAUNEA: Birtute ori Kurutzek nundi dau?

ERANZUEREA: Kristok bere eriotzaz antxe garaitu, edo benzidu zitualako.

ITAUNEA: Kurutzea adoretan dozunean, zelan esaten dozu?

ERANZUEREA: Adoretan, eta bedeinketan zaituguz, Kristo, zerren zure Kurutzearen birtutez mundua erredimidu, edo libradu zenduan.

KRISTIÑAU DOTRINEAREN DIBISIÑO EDO BEREZIA

Ikusi dogu, zelan Kristiñaba zarean, Kristiñabaren izen, ta señalez. Baia orañ esan egidazu:

ITAUNEA: Zenbat gauza jakitera obligadurik dago Kristiñaba errazocaren usura datorrenean?

ERANZUEREA: Lau gauza.

ITAUNEA: Zeñzuk dira?

ERANZUEREA: Zer sinistu, zer eskatu, zer egin, ta zer artu behar daben jakitera.

ITAUNEA: Zelan jakingo dau, zer sinistu bear daben?

ERANZUEREA: Kredoa, edo Fedeko Artikuloak jakiñaz.

ITAUNEA: Zelan jakingo dau zer eskatu bear daben?

ERANZUEREA: Aita gurea, ta Elexako beste oraziñoak jakiñaz.

ITAUNEA: Zelan jakingo dau, zer egin bear daben?

ERANZUEREA: Jangoikoen Legeko ta Elexa Ama Santen Mandamentuak, Miserikordiazko obrak jakinaz.

ITAUNEA: Zelan jakingo dau, zer artu bear daben?

ERANZUEREA: Elexa Ama Santearen Sakramentuak jakinaz.

DOTRINEAREN LENENGO PARTEA, ZEÑETAN DEKLARETAN EDO AZALE- TAN DAN KREDOA, ETA FEDEKO ARTIKULUAK

ITAUNEA: Lenengora gatozan; esazu, Kredoa nok esan eban?

ERANZUEREA: Apostoluak, edo Kristok bialduak.

ITAUNEA: Zertako?

ERANZUEREA: Fedeko gauzak guri adi erazoteko.

ITAUNEA: Eta zuk zetako esaten dozu?

ERANZUEREA: Kristiñabak daukagun Fede au berau autortu, edo konfisetako.

ITAUNEA: Zer gauza da Fedea?

ERANZUEREA: Ikusi eztoguna sinisetea.

ITAUNEA: Jeus Kristo jaioten ikusi zenduan?

ERANZUEREA: Ez, Jauna.

ITAUNEA: Ilten, edo Zeruetara igoten ikusi zenduan?

ERANZUEREA: Ez, Jauna.

ITAUNEA: Sinisetan dozu?

ERANZUEREA: Bai, Jauna.

ITAUNEA: Zegaiti sinisetan dozu?

ERANZUEREA: Zerren gure Jangoikoak alan agertu deusnan Elexa Ama Santeari, ta onek alan irakasten deuskun.

ITAUNEA: Eta zerkuz dira Kristiñauak legez daukazuzan, eta sinisetan dozuzan gauzak?

ERANZUEREA: Erromako Elexa Ama Santeak daukazan, eta sinisetan dituanak.



ITAUNEA: Ak, etazuk sinisetan dozuzanak zeñzuk dira?
ERANZUEREA: Fedeko Artikuluak, batez ere Kredoan dagozana legez.
ITAUNEA: Fedko Artikuluak, zezuk dira?
ERANZUEREA: Aen Misteriorik andien, edo prinzipalena.
ITAUNEA: Fedeko Artikuluak zertako dira?
ERANZUEREA: Gure Jangoikoen, ta Jesu Kristo gure Erredentoreen barri distintoa, edo ezaguera banaro emaiteko.
ITAUNEA: Zer, edo zeñ da gure Jangoikoa?
ERANZUEREA: Da esan al, ta gogora al daitekean gauzarik garaien, eso eszelente, ta miragarriena: Jaun bat fin bagarik ona, poderosoa, jakituna, justua, gauza guzien asierea, ta akabua.
ITAUNEA: Trinitate txito Santua zer da?
ERANZUEREA: Da Jangoikoa bera, Aita, Semea, ta Espiritu Santua: Iru Persona distintoak, edo bana, ta Jangoiko egiazko bakar bat.
ITAUNEA: Aitea Jangoikoa da?
ERANZUEREA: Bai, Jauna.
ITAUNEA: Semea Jangoikoa da?
ERANZUEREA: Bai, Jauna.
ITAUNEA: Espiritu Santua Jangoikoa da?
ERANZUEREA: Bai, Jauna.
ITAUNEA: Eta iru Jangoiko dira?
ERANZUEREA: Ez, Jauna, ezpada Jangoiko egiazko bakar bat.
ITAUNEA: Aita bada Semea?
ERANZUEREA: Ez, Jauna.
ITAUNEA: Espiritu Santua bada Aita, edo Semea?
ERANZUEREA: Ez, Jauna.
ITAUNEA: Zegaiti?
ERANZUEREA: Zerren Personak distintoak edo bana direan, izan arren Jangoiko egiazko bakar bat.
ITAUNEA: Jangoikoa zelan da guztiz poderosoa?
ERANZUEREA: Zerren bere podere bakarragaz gura daben guztia egiten daben.
ITAUNEA: Zelan da Kriadorea?
ERANZUEREA: Zerren gauza guztiak ezebere ezeti egin zituan.
ITAUNEA: Zelan da Salbadorea?
ERANZUEREA: Zerren grazia emaiten daben, eta pekatuak parkatuten dituan.
ITAUNEA: Zelan da Jangoiko Glorifikadorea?
ERANZUEREA: Zerren aen grazian irauten dabenari gloria emaiten deutan.

ITAUNEA: Jangoikoak, guk legez, gorputzen irudin, edo figurea badau?
ERANZUEREA: Jangoikoa danez, edo aldez, ez, zerren Espiritu naste bagea, edo purua dan; baia Gizona danez, edo aldez, bai.
ITAUNEA: Jangoikozko iru Personetatik zeñ egin zan Gizon?
ERANZUEREA: Bigarrena, zeñ dan Semea?
ITAUNEA: Aitea egin zan Gizon?
ERANZUEREA: Ez, Jauna.
ITAUNEA: Espiritu Santua Gizon egin zan?
ERANZUEREA: Ez, Jauna.
ITAUNEA: Zeñ bada?
ERANZUEREA: Bakarrik Semea zeñeri, Gizon egin, ta deritxan Jesu Kristo.
ITAUNEA: Orrela beraz nor da Jesu Kristo?
ERANZUEREA: Jangoiko biziaren Semea, gu erredimieteagaiti, ta guri exenploa emaitagaiti, Gizon egin zana.
ITAUNEA: Jesusen izen onek zer esan gura dau?
ERANZUEREA: Salbadorea.
ITAUNEA: Zetati salbadu ginduzan?
ERANZUEREA: Gure pekatuetati, eta demonioen kautiberioti.
ITAUNEA: Kristok zer esan gura dau?
ERANZUEREA: Unjidua.
ITAUNEA: Zerez Unjidua izan zan.
ERANZUEREA: Espiritu Santuen graziaz, eta doaez.
ITAUNEA: Jesu -Kristo gure Jauna zelan sortu, ta jaio zan Birjina zan Ama ganik?
ERANZUEREA: Jangoikoak izakiz gañera, edo sobrenaturalmente, eta mirariz obraetan ebalu.
ITAUNEA: Aen Ama gero beti Birjina geratu zan?
ERANZUEREA: Bai, Jauna, beti betiro.
ITAUNEA: Zegaiti Kurutzeko eriotza artu gura izan eban?
ERANZUEREA: Pekatuti, ta eriotzati, gu libreteagaiti.
ITAUNEA: Jesu Kristo gure Jauna ill ezkeru jatsi zan infernuaz zer adietan dozu?
ERANZUEREA: Ez kondenatuen tokia, ezpada justuak egozan Linboa deritxan lekua.
ITAUNEA: Zelan jatsi zan?
ERANZUEREA: Jangoikotasunari Arimegaz batu, edo unidurik.
ITAUNEA: Eta aen korputza zelan geratu zan?
ERANZUEREA: Jangoikotasunari berari batu, edo unidurik.
ITAUNEA: Irugarren egunean zelan biztu zan?



ERANZUEREA: Aen gorputz, ta arima gloriatsua batuten, edo berriro juntetan zireala, geiago ez ilteko.

ITAUNEA: Zeruetara zelan igo eban?

ERANZUEREA: Bere berezko Birtutez.

ITAUNEA: Aita Jangoikoen eskumatati jarri, ta egotea, zer da?

ERANZUEREA: Ak Jangoikoa dan alde, gloria bardina eukitea: eta Gizona dan alde, beste iñok baño andiagoa.

ITAUNEA: Biziak eta illak juzgaetara nox etorriko da?

ERANZUEREA: Munduaren akabatuan, edo azkenean.

ITAUNEA: Eta ill guztiak biztu bearko dabe orduan?

ERANZUEREA: Bai, Jauna, euren gorputz, ta arima len zituenakaz.

ITAUNEA: Santuen Komunioa sinisetan dot, esaten dozuncan, zer sinisetan dozu?

ERANZUEREA: Fielak parte daukeela besteen espirituko ondasunetan, gorputz baten bizikai, edo mienbroak legez, zeñ dan Elexea.

ITAUNEA: Zer, edo zeñ da Elexa?

ERANZUEREA: Da Kristiñau fielen Kongregazio, edo batzarra, zeñen burua dan Aita Santua.

ITAUNEA: Aita Santua nor da?

ERANZUEREA: Erromako Aita Nagusia, lurrean Kristoen Bikarioa, zeñeri obedezietara guziok obligadurik gagozan.

ITAUNEA: kredoaz, ta Artikuluez gañean besterik sinisetan dozu?

ERANZUEREA: Bai, Jauna, Eskritura Sagraduan dagoan guztia, ta Jangoikoak bere Elexari agertu deutzan guztia.

ITAUNEA: Zer gauza dira orrek?

ERANZUEREA: Ez niri ori itandu, jakineza naxan oni. Elexa Ama Santeak Maisuak baditu eranzuten jakingo dabenak.

MAISUA: Ondo diñozu. Irakasleari iagote, ez zuri fedeko gauzetan txego, ta luzeago kontu emaita: zuentzat asko da Artikuluen kontu, Kredoan dagoan legez, emaita.

**KRISTIÑAU DOKTRINEAREN
BIGARREN PARTEA,
ZEÑETAN AZALDUTEN, EDO
DEKLARETAN DAN, ZER ESKATU
BEAR DAN, ETA ELEXA AMA**

**SANTEAREN
ORAZIÑOAK**

Ikusi dogu, zelan dakizun sinistu bear dana, eta zan aurrenengoa. Gatozan bigarrenara, eta da eskatu bear dana. Esazu.

ITAUNEA: Nok esan eban Aita gurea?

ERANZUEREA: Jesu Kristok.

ITAUNEA: Zetako?

ERANZUEREA: Erregututen guri irakasteko.

ITAUNEA: Zer gauza da erregututea?

ERANZUEREA: Da Jangoikoagana biotza alzetea, ta mesedeak esketea.

ITAUNEA: Aita gurea esatean nogaz berba egiten dozu?

ERANZUEREA: Gure Jaun, eta Jangoikoagaz.

ITAUNEA: Nun dago gure Jangoikoa?

ERANZUEREA: Leku guztian, berezkiro Zeruan, ta Altarako Sakramentu txito Santuan.

ITAUNEA: Oraziñoen artean onena zeñ da?

ERANZUEREA: Pater noster, edo Aita gurea.

ITAUNEA: Zegaiti?

ERANZUEREA: Zerren Apostoluak eskatu, ta Kristok bere aoz esan eban.

ITAUNEA: Zegaiti geiago?

ERANZUEREA: Zerren zazpi eskari karidade osoan fundaduak dituan.

ITAUNEA: Zeñzuk dira?

ERANZUEREA: Lenengoa, Santifikadu bedi zure Izena.

ITAUNEA: Zer eskatuten dozu eskari orretan?

ERANZUEREA: Jangoikoen Izena mundu guztian ezagutua, ta onradua izan dedilla.

ITAUNEA: Zeñ da bigarrena?

ERANZUEREA: Betor gugana zure Erreinua.

ITAUNEA: Zer eskatuten dozu eskari orretan?

ERANZUEREA: Jangoikoak gure arimetan emen lurrean, graziaz erreina-
du dagiala, eta gero gloria digula.

ITAUNEA: Zeñ da irugarrena?

ERANZUEREA: Egin bedi zure borondatea nolan Zeruan. alan lurrean.

ITAUNEA: Zer eskatuten dozu eskari orretan?

ERANZUEREA: Jangoikoen borondatea lurrean gogozanok dagigula,
Zeruan doatsuak egiten daben legez.



ITAUNEA: Laugarrena zeñ da?
ERANZUEREA: Egun iguzu gure eguneango ogia.
ITAUNEA: Zer eskatuten dozu eskari orretan?
ERANZUEREA: Gorputzari dagokan mentenimentua Jangoikoak digula, eta arimearentzat grazia, eta Sakramentuak.
ITAUNEA: Zeñ da bostgarrena?
ERANZUEREA: Parkatu egiguzuz gure zorrak, guk gure zordunai parketan deusteguzana legez.
ITAUNEA: Zer eskatuten dozu eskari orretan?
ERANZUEREA: Jangoikoak gure pekatuak parkatu degiguzala, gere agra-biadu, ta gatz egin deuskuenai guk parkatu deustegun legez.
ITAUNEA: Zeñ da seigarrena?
ERANZUEREA: Itxi ez eiguzu tentaziñoan jausten.
ITAUNEA: Zer eskatuten dozu eskari orretan?
ERANZUEREA: Jangoikoak itxi ezkagizala, deabruak pekatuan jausi eragiteko, ekarten deuskuzan pensamentu gesto, eta tentaziñoetan, eta ez orrei lekuri emaiten.
ITAUNEA: Zeñ da zazpigarrena?
ERANZUEREA: Baia libradu gagizuz gatxetik.
ITAUNEA: Zer eskatuten dozu eskari orretan?
ERANZUEREA: Jangoikoak libradu gagizala arimako, ta gorputzeko gatz, ta peliguru gustietarik.
ITAUNEA: Baia zegaiti asieran lenengo esan dozu: Aita gurea, Zeuretan zagozana?
ERANZUEREA: Jangoikoagana biotza jasoteko, ta humiltasunez, ta konfiazaz ari eskatuteko.
ITAUNEA: Azkenean esaten dozun berbeak: Amen zer esan gura dau?
ERANZUEREA: Alan izan dedilla, edo alan biz.
ITAUNEA: Ze oraziño esaten deutzazu berezkiro Ama Birjineari?
ERANZUEREA: Abe Maria, ta Salbea.
ITAUNEA: Nok esan eban Abe Maria?
ERANZUEREA: Angeru San Gabrielek Ama Birjineari agur egiten etorri zanean.
ITAUNEA: Nok esan eban Salbea?
ERANZUEREA: Elexa Ama Santak dauka artua.
ITAUNEA: Zetarako?
ERANZUEREA: Ama Birjineari faborea eskatuteko.
ITAUNEA: Abe Maria, edo Salbea esaten dozunean nori zaiakogaz?
ERANZUEREA: Birjina Maria gure Ama Andreari.

ITAUNEA: Birjina Maria gure Ama Andrea nor da?
ERANZUEREA: Da birtutez beteriko Andra bat Jangoikoen Ama, ta Zeruan dagoana.
ITAUNEA: Ta Altaran dagoana nor da?
ERANZUEREA: Zeruan dagoanen Imajinea, ta aen antza dabena.
ITAUNEA: Zetako dago an?
ERANZUEREA: Aen bidez Zeruan dagoanagaz gomuta gaiten, ta onen Imajina dalako, erreberenzia degiogun.
MAISUA: Bada beste Santuen Imajinai bere alan egin bear deustezu.
ITAUNEA: Angeruai, ta Santuai bere erregutu bear deustegu?
ERANZUEREA: Bai, Jauna, gure bitartekoai legez.
ITAUNEA: Ze gauza dira Angeruak?
ERANZUEREA: Zeruan Jangoikoa gozetan dagozan Espiritu Doatsu batzuk.
ITAUNEA: Jangoikoak zetako egin zituan?
ERANZUEREA: Bera beti, edo eternidade guztian alabetako, eta bedeinketako.
ITAUNEA: Eta zetako geiago?
ERANZUEREA: Bere ministroak legez Elexa gobernadu, ta Gizonak gorde dagiezan.
ITAUNEA: Beraz zuk bere Angeru gordeetan zaituana baukazu?
ERANZUEREA: Bai, baukat, ta Gizon bakotxak dau berea.
MAISUA: Bada deboziño andia arte egiozu, eta enkomenda zakioz egunean egunean.

IRUGARREN PARTEA, ZEÑETAN EGIN BEAR DANA AZALTZEN DAN

Ikusi dogu, zer sinistu ta zer eskatu bear dan: dakuskun zelan dakin, zer egin bear dan.

ITAUNEA: Esazu: Jangoikoen Legeko lenengo Mandamentua zeñ da?
ERANZUEREA: Jangoikoa gauza guztien ganean amaetea.
ITAUNEA: Nok amaetan dau Jangoikoa?
ERANZUEREA: Aen Mandamentuak gordeetan dituanak.
ITAUNEA: Zer da gauza guztien ganean bera amaetea?
ERANZUEREA: Guztiak galtzea gurago izatea, bera ofendietea baño.



ITAUNEA: Zetara geiago Mandamentu onek obligetan gaitu?

ERANZUEREA: Bera bakarrik gorputz, ta arimako erreberenziarik andienagaz adoretara fede biziuz beragan sinisetan, ta esperetan dogula.

ITAUNEA: Onen kontra nok pekatu egiten dau?

ERANZUEREA: Eskuz eginiko idolo edo jangoiko falsoak adoretan dituanak, edo orretan sinisetan dabenak.

ITAUNEA: Nok geiago?

ERANZUEREA: Aztinanz, edo agueruetan sinisetan dabenak, eta etxizeria, edo sorginkeriak usetan dituanak.

ITAUNEA: Bigarren Mandamentua zeñ da?

ERANZUEREA: Aen Izen Santuaz juramentu banoan ez egitea.

ITAUNEA: Nok, esan oi da, juramentu banoan egiten dabela?

ERANZUEREA: Egirik, justiziarik, ta bearrik baga egiten dabenak.

ITAUNEA: Eta ezeri eztagokala, edo banoan Kriaturak gaiti juramentu egitea pekatu da?

ERANZUEREA: Bai, Jauna, zerren aetan Kreadoreari egiten iakan.

ITAUNEA: Irugarrena zeñ da?

ERANZUEREA: Jai egunak gorde, edo santifiketea.

ITAUNEA: Nok jai egunak gordeetan ditu?

ERANZUEREA: Meza osoa enzun, eta lanik nezesidade, edo premia baga egiten eztabenak.

ITAUNEA: Zeñ da laugarrena?

ERANZUEREA: Aita, eta Ama onretea.

ITAUNEA: Nok onreta ditu Gurasoak?

ERANZUEREA: Obedezietan, lagunduten, eta erreberenzietan dituanak.

ITAUNEA: Gurasoen izenez besterik adituten da?

ERANZUEREA: Edadean, diñadadean, ta gubernuan nagusiago direanak.

ITAUNEA: Zeñ da bostgarrena?

ERANZUEREA: Iñor ez iltea.

ITAUNEA: Mandamentu onetan zer aginduten da?

ERANZUEREA: Iñori ez gatzik egitea, ez obraz, ez berbaz, ez eta gogoz bere.

ITAUNEA: Zeñ da seigarrena?

ERANZUEREA: Aragiazko pekaturik ez egitea.

ITAUNEA: Mandamentu onetan zer aginduten da?

ERANZUEREA: Garbi edo kasto izan gaitela, gogo, berba, eta obretan.

ITAUNEA: Zeñ da zazpigarrena?

ERANZUEREA: Ez ostutea.

ITAUNEA: Mandamentu onetan zer aginduten da?

ERANZUEREA: Ez kendu, ez euki ez iñoen gauzarik deseetea, bere jabeen boroandateen kontra.

ITAUNEA: Zeñ da zortzigarrena?

ERANZUEREA: Testimonio falsorik ez ezarte, guzurrik ez esatea.

ITAUNEA: Zer aginduten da Mandamentu onetan?

ERANZUEREA: Lagun urkoaz erraz, edo arin deungaro ez juzgaetea, eta aen faltak ez esatea, ta ez enzutea.

ITAUNEA: Manamendu au nok austen dau?

ERANZUEREA: Errazioen kontra juzgaetan dabeenak, deungaro esaka iñoen gatxa agertuten dabenak, ta guzurra diñoan.

ITAUNEA: Bederatzigarren, ta amargarren Mandamentuan zer debeketan da?

ERANZUEREA: Sentidu, edo zentsuen gutiziak, ta aziendeen deseo, edo eresiak.

MAISUA: Elexa Ama Santearen Mandamentuak esazuz.

ELEXA AMA SANTEAREN MANDAMENTUAK DIRA BOST

Lenengoa, Domeka, ta jai guztietan Meza osoa enzutea.

Bigarrena, urtean beñ edo bere konfesetea, edo lenago, ilteko pelliguruik uste bada, edo komulgadu bear bada.

Irugarrena Pasko loratuan komulgetea.

Laugarrena, Elexa Ama Santeak eginduten dabenean baraur egitea.

Bostgarrena, Amarren, ta primiziak Jangoikoen Elexari pagetea.

ITAUNEA: Zetako dira Mandamentu onek?

ERANZUEREA: Jangoikoenak obeta gordeetako.

MAISUA: Miserikordiazko obrak esazuz.

MISERIKORDIAZKO OBRAK DIRA AMALAU

Zazpi arimeari, edo Espirituari, ta beste zazpi gozputzari dagokozanak

Espirituari dagokozanak dira onek.

Lenengoa, eztakianari irakastea.

Bigarrena, bear dabenari konseju ona emaita.



Irugarrena, uts egiten dabena zuzendutea.
 Laugarrena, bidebagak, edo injuriak parketea.
 Bostgarrena tristeak konsolotea.
 Seigarrena, lagun urko, edo proximoen atsakabak, ta argaltasunak pazienziatz erotea.
 Zazpigarrena, biziak eta illak gaitik Jangoikoari erregututea.

Gorputzari dagokozanak dira onek

Lenengoa, gestoak bisitadu, edo ikustaetea.
 Bigarrena, gose danari jaten emaita.
 Irugarrena, egarri danari edaten emaita.
 Laugarrena, kautiboak erreskatetea.
 Bostgarrena, bilosa janzitea.
 Seigarrena, bidezko pobre, edo pelegriñoari ostatu emaita.
 Zazpigarrena, illak beatu, edo enteratea.

ITAUNEA: Zegaiti derizte Miserikordiazkoak?
ERANZUEREA: Zerren justiziaz zor ez tirean.
ITAUNEA: Aginduz edo prezeptoz nox obligetan dabe?
ERANZUEREA: Gizon jakitunen eretxian estutasun astunekoak direanean.

LAUGARREN PARTEA, ZEÑETAN ESPLIKETAN DIREAN ARTU BEAR DIREAN SAKRAMENTUAK

Ikusi dogu, zelan dakizun, zer sinistu, zer eskatu, ta zer egin bear dozun. Dakuskun zelan dakizun, zer artu bear dozun, ta da azkeneko gauzea. Esazuz Sakramentuak.

Ellexa Ama Santearen Sakramentuak dira zuzpi. Lenengo bostak dira neze-sadadezko edo bear-bearrak, izatez edo borondatez, eta onek bagarik gizona ezin salba leiteke, ajolakabaz, edo menosprezioz isten baditu. Beste biak borondatezkoak dira.

Lenengoa Batea.
 Bigarrena, Konfirmaziñoa.

Irugarrena, Penitenzia, edo Konfesiñoa.
 Laugarrena, Komuniñoa.
 Bostgarrena, Oleaziñoa, Estremaunziñoa.
 Seigarrena, Ordena.
 Zazpigarrena, Ezkontzea, Matrimonioa.

ITAUNEA: Ze gauza dira Sakramentuak?
ERANZUEREA: Dira señale agiri diran batzuek Kristo gure Jaunak emonak, aen bidez bere grazia, ta birtuteak guri emaiteko.
ITAUNEA: Ze gauza da grazia?
ERANZUEREA: Da Jangoikozko izate bat Gizona Jangoikoen Seme egiten dabena, eta Zeruaren Jabegei, edo erederu.
ITAUNEA: Ze birtute, graziagaz batera, Sakramentuak emaiten dabe?
ERANZUEREA: Berezkiro iru teologalak, edo Jangoikoagazkoak.
ITAUNEA: Zeñzuk dira?
ERANZUEREA: Fedea, Esperanza, eta karidadea.
ITAUNEA: Zer da fedea?
ERANZUEREA: Ikusi eztoguna sinisetea, zerren Jangoikoak alan erakusi daben.
ITAUNEA: Zer da Esperanza?
ERANZUEREA: Gloria esperetea, Jangoikoen graziatz, eta gure obra onen bidez.
ITAUNEA: Zer da Karidadea?
ERANZUEREA: Gauza guztien ganean Jangoikoa amaetea, eta gure lagun urkoa gure buruak legez: onek guri on egitea gura doguna legez geuk bere egiten deustegula.
ITAUNEA: Bateoko Sakramentua zetako egin zan?
ERANZUEREA: Pekatu orijinala, edo iatorrizkoa, eta beste edozeñ bateatan danagan aurkietan dana kentzeko.
ITAUNEA: Pekatu orijinala zer da?
ERANZUEREA: Guztiok agaz jaioten gareana, ta lenengo Gurasoetati iatorkuna.
ITAUNEA: Konfirmaziñoako Sakramentua zetako da?
ERANZUEREA: Bateoan artu genduan Fedean gu konfirmaetako, edo sendoago egiteko.
ITAUNEA: Penitenziako Sakramentua zetako da?
ERANZUEREA: Bateatu ezkeru eginiko pekatuak parketako.
ITAUNEA: Ze pekatu dira orrek?
ERANZUEREA: Eriozko, edo mortalak, bai ta benialak bere.



ITAUNEA: Pekatu mortala zer da?

ERANZUEREA: Da esatea, egitea, pensetea, edo deseatea zer bait Jangoikoen Legeen kontra gauza astun, edo andiren batean.

ITAUNEA: Zegaiti deritxo mortala?

ERANZUEREA: Zerren egiten dabenen arimea ilten daberen.

ITAUNEA: Zeinbat parte ditu Penitenziak pekatu mortala kentzeko?

ERANZUEREA: Iru.

ITAUNEA: Zeñtzuk dira?

ERANZUEREA: Biotzeko damuaria, aozko Konfesiñoa, ta obrazko satisfaziñoa.

ITAUNEA: Eta pekatu mortalean jausten dan guztian, parkatu dakion, bertati konfesadu bear dau?

ERANZUEREA: Ondo litzateke, baia ezta premiako gauza.

ITAUNEA: Zer egin bear dau bada?

ERANZUEREA: Bere pekatuen damuari egiazkoa emendetako proposituaz euki, eta Elexa Ama Santeak aginduten dabenean konfesadu.

ITAUNEA: Pekatu benial, edo arina, ze gauza da?

ERANZUEREA: Pekatu mortalen disposiziño, edo prestamen bat.

ITAUNEA: Zegaiti deritxo beniala?

ERANZUEREA: Zerren orretan Gizona errez jausten dan, ta errez parkatuten iakan.

ITAUNEA: Zeinbat gauza gaitik parkatuten da?

ERANZUEREA: Bederatzi gaitik.

ITAUNEA: Zeñtzuk dira?

ERANZUEREA: Lenengoa, Meza enzutea gaitik.

Bigarrena, Komulgetea gaitik.

Iruigarrena, Konfesiño jenerala gaitik.

Laugarrena, Obispoen bendiziñoa gaitik.

Bostgarrena, Ur bedeñkatua gaitik.

Seigarrena, Ogi bedeñkatua gaitik.

Zazpigarrena, Pater Noster, edo Aita gurea esana gaitik.

Zortzigarrena, Sermoea enzutea gaitik.

Bederatzigarrena, Jangoikoari parkaziñoa esketan deusela bularra joa gaitik.

ITAUNEA: Komunioko Sakramentu guztiz Santuan zer artzen dozu?

ERANZUEREA: Kristo Jangoiko, ta Gizon egiazkoa, Altarako Sakramentuan egiaz dagoana.

ITAUNEA: Oleazioko Sakramentua zetako da?

ERANZUEREA: Iru gauzatarako. Lenengoa, igaroko bizitza gaistoen errastu, ta kutsuak kentzeko. Bigarrena, demonioen tentaziñoen kontra arimeari indarra emaiteko. Iruigarrena, gorputzari, konbeni baiako osasuna emaiteko.

ITAUNEA: Ordenaren Sakramentua zetako da?

ERANZUEREA: Elexearen diñako Ministroak, zelan diran Sazerdoteak, Diakono, ta Subdiakonoak, konsagradu, ta ordenduteko.

ITAUNEA: Ezkontzako, edo Matrimonioko Sakramentua zetako da?

ERANZUEREA: Ezkonetako, ta ezkonduai grazia emaiteko zeñgaz bakean bizi ditezen, ta umeak Zerurako azi dagiezan.

PEKATU KAPITALAK EDO BESTEEN SUSTRAIAK DIRA ZAZPI

Lenengoa, Soberbia. Bigarrena, Abarizia. Iruigarrena, Luxuria. Laugarrena, Ira. Bostgarrena, Gula. Seigarrena, Enbidia. Zazpigarrena, Nagitasuna.

ITAUNEA: Zegaiti kapitalak dei egin deustezu mortalak komunkiro deristen zazpi orreri?

ERANZUEREA: Kapitalak deriste, zerren direan buruak, ta best bizio, orretati jaioten direanen iturri, ta sustraiak legez, eta ez iagokee añ ondo mortalak dei egitea, bada askotan benialak baño eztira.

ITAUNEA: Mortalak nox dira?

ERANZUEREA: Jangoikoen, ta lagun urkoen Karidadearen kontra diranean.

ITAUNEA: Karidadearen kontra nox dira?

ERANZUEREA: Eurak gaiti, Jangoikoen, edo Elexaren Mandamenturen bat gauza grabean austen danean.

ITAUNEA: Soberbia zer da?

ERANZUEREA: Besteak baño geiago izan nai, edo erabagako gurari bat.

ITAUNEA: Abarizia zer da?

ERANZUEREA: Ondasune deseo, edo gogo erabagako bat.

ITAUNEA: Luxuria zer da?

ERANZUEREA: Gorputzen atsegin loien gogo erabagako bat.

ITAUNEA: Ira zer da?

ERANZUEREA: Benganzen gogo erabagako bat.

ITAUNEA: Gula zer da?



ERANZUEREA: Jateko, ta edateko gogo erabagako bat.

ITAUNEA: Enbidia zer da?

ERANZUEREA: Besteen onen damu bat.

ITAUNEA: Nagitasun, edo pereza zer da?

ERANZUEREA: Obra onak egiteko arimako atzerapen bat.

ZAZPI BIZIO ONEN KONTRA DIRA ZAZPI BIRTUTE

Soberbiaren kontra, Humiltasuna. Abariziaren kontra, Liberaltasuna. Luxuriaren kontra, Kastidade edo Garbitasuna. Iraren kontra, Pazienza. Gulaen kontra, Tenplanzea. Enbidiaen kontra Karidadea. Nagitasunaren kontra Dilijenzia, edo Lasterrera.

IGES EGIN BEAR DEUSTEGUN ARI- MEAREN ARERIOAK DIRA IRU

Lenengoa, Mundua. Bigarrena, Demonioa. Irugarrena, Aragia.

ITAUNEA: Mundua ganik zelan iges egiten da?

ERANZUEREA: Onen ponpa, ta banidadeak ezetan ez eukiagaz.

ITAUNEA: Demonioa ganik zelan iges egiten da?

ERANZUEREA: Oraziño, ta humiltasunagaz.

ITAUNEA: Aragia ganik zelan iges egiten da?

ERANZUEREA: Oneganik iges egiten da, eta au benzietan da gogortasun, diziplina, ta baraurragaz. Areiorik andiena au da, zerren Aragia guganik ezin kendu dugun; Mundua, ta Demonioa bai.

BIRTUTE TEOLOGALAK, EDO JAN- GOIKOAGANUNZKOAK DIRA IRU

Lenengoa Fedea. Bigarrena, Esperanza. Irugarrena Karidadea.

BIRTUTE PRINZIPAL, EDO KARDINALAK DERISTENAK, DIRA LAU

Lenengoa, Prudenzia. Bigarrena, Justizia. Irugarrena, Fortaleza. Laugarrena, Tenplanzea.

GORPUTZEN SENTIDUAK DIRA BOST

Lenengoa begiakaz ikustea. Bigarrena belarriakaz enzutea. Irugarrena agoagaz gustetea. Laugarrena, surrakaz usain egitea. Bostgarrena eskuakaz ukitea.

ITAUNEA: Sentiduak, ta beste osterantzeko mienbruak Jangoikoak zetako emon euskuzan?

ERANZUEREA: Guztiakaz gauza guzietan bera serbidu gengian.

ARIMEAREN POTENZIAK DIRA IRU

Memoria, Entendimentua, ta Borondatea.

ITAUNEA: Memoria Jangoikoak zetako emon euskun?

ERANZUEREA: Beragaz, ta bere onegiteaz komuta gaitean.

ITAUNEA: Adimentua Jangoikoak zetako emon euskun?

ERANZUEREA: Gura Jauna ezagututeko, eta agan pensetako.

ITAUNEA: Borondatea zetako emon euskun?

ERANZUEREA: Ontasunik andiena legez bera ameteko, eta lagun urkoa bera gaiti.

ESPIRITU SANTUEN DOEAK DIRA ZAZPI

Lenengoa, Jakintasunen Doea. Bigarrena, Adimentuen Doea. Irugarrena, Konsejuen Doea. Laugarrena Zienziaen Doea. Bostgarrena, Forta-



lezaren Doea. Seigarrena, Piedadeen Doea. Zazpigarrena, Jangoikoen Biddurraren Doea.

ESPIRITU SANTUEN FRUTUAK DIRA AMABI

Lenengoa, Karidadea. Bigarrena, Bakea. Irugarrena. Longanimidade, edo animoen firmezea. Laugarrena, Benignidade edo ondogiara. Bostgarrena, Fedea. Seigarrena, Kontinenzia, edo moderaziñoa. Zazpigarrena, Espirituko gozoa. Zortzigarrena, Pazienzia. Bederatzigarrena, Ontasuna. Amargarrena, Mansotasuna. Amekagarrena, modestia. Amabigarrena, Kastidea.

BIENABENTURANZAK, EDO ZORIONAK DIRA ZORTZI

1. Zorionekoak espirituz pobre direanak, zerren Zeruetako Erreinua aena dan.
2. Zorionekoak mansoak, zerren orrek lurra poseitu, edo menpetuko daben.
3. Zorionekoak negar egiten dabenak, zerren aek konsoladuak izango direan.
4. Zorionekoak Justizien gose, ta egarri direanak, zerren aek aseak izango direan.
5. Zorionekoak miserikordiosoak, zerren Miserikordia alkanzaduko daben.
6. Zorionekoak biotz garbikoak, zerren onek Jangoikoa ikusiko daben.
7. Zorionekoak baketsuak, zerren onek Jangoikoen seme izendatu-ko direan.
8. Zorionekoak Justizia gaiti persegid, zerren Zeruetako Erreinua aena izango dan.

ITAUNEA: Zer esan dogu orañ?

ERANZUEREA: Zortzi Bienabenturanzak edo Zorionak.

ITAUNEA: Ze gauza dira Bienabenturanzak?

ERANZUEREA: Birtuteen, ta Ezpiritu Santuen Doeen obrarik onenak.

ITAUNEA: Espirituz pobreak norzuk dira?

ERANZUEREA: Onrarik, ta aberastasunik moderadu, edo gutxirik bere gura eztabenak.

ITAUNEA: Mansoak norzuk dira?

ERANZUEREA: Irarik eztabenak, ezta kasik aen mogimenturik bere.

ITAUNEA: Zelan lurrea poseiduten dabe, edo dira orren iabe?

ERANZUEREA: Euren buruen iabeen legez.

ITAUNEA: Negar egiten dabenak norzuk dira?

ERANZUEREA: Atseginik txikienak, edo moderaduenak bere isten dituezanak.

ITAUNEA: Justiziaren gose, eta egarri direanak norzuk dira?

ERANZUEREA: Bear dabena gauza guzietan ansiaz egiten dabenak.

ITAUNEA: Miserikordiosoak norzuk dira?

ERANZUEREA: Atzeakgaz bere biotz txito biguna dabenak.

ITAUNEA: Biotz garbidunak norzuk dira?

ERANZUEREA: Euren pasiñoetan guztiz mortifikaduak direanak.

ITAUNEA: Baketsuak norzuk dira?

ERANZUEREA: Bakezko obrak eurakan eta besteakan egiten dituezanak.

ITAUNEA: Justizia gaiti persekuziñoa daroenak norzuk dira?

ERANZUEREA: Pesegiduak izan arren, guztietan sendo dagozanak.

ITAUNEA: Zegaiti onei Zorion, edo Bienabenturanzak deriste?

ERANZUEREA: Zrren bizitza onen Zoriona, eta bestekoen esperantzea onetan dagoan.

MAISUA: Jangoikoak guztiok ara eroan gagitzala. Amen.

Onegiño da Aita Asteteen Katezismo, edo Doktrinea

AITA GASPAS ASTETE

Beneragarria Salamankako Semea, ta gure Konpañiako Teolojiako Maisu jakituna, birtute andiko, Jangoikoen adiskide maitea izan zan, ta Burgosko Kolejioan ill, edo Zerura joan zan. Gazteai Zeruko bidea erakusteko Maisu guztiz egokina zan: eta orrentzat, eta Donzella, Ezkondua, Alargun, ta Relijiosoeztzat, Estadu guzietan Jangoikoa obeto serbietako berarizko Libruan atera zituan.

Baia obra eder orren artean guztien lorea, ta koroea, urrezko Dotri-
na labur au izan zan; eta añ parebaga egokina, ta Zeruko estimadua, ze



beste Relijioso Dominiko, Teolojiako Maisu fama andiko batek bere Dizi-puluai esaten eutsen: «Aita Asteteen Dotrinea, edo Kartilla txikina da gauza añ andia, ze Astete au eginik ezpalego, edo onelango Dotrina bar egin bear baliz, munduan ez litzateke gizonik. orrelango Kartilla bat egin-go leukeanik».

Asteen Dotrina onegaz Kristiñau Fedeko bular gozoa artu, azi, ta gizonik andienak Maisu egin dira. Zeruko Librutxo au da Kura Jaun, ta Elexa Maisuen texto, edo asiera laburra, orren ganean gero gura dan legez Dotrinea zabalduteko.

Alan Fedeko gauzarik eskutaduenak emen laburtxo agertuko ditut, eta lenengoa:

ENKARNAZIÑOKO MISTERIOA, EDO JANGOIKOA ZELAN GIZON EGIN ZAN

ITAUNEA: Enkarñazinoko Misterioa zetan dago?

ERANZUEREA: Trinitadeko bigarren Personea zein dan Semea, Ama Birjinen Sabel garbian Gizon egitean; baia ez gizonen obrax, ezpada Espiritu Santuen birtutez: Ama beti Birjina geratuten zala, Semea egin baño len, seme egikera, eta semea egin ezker.

ITAUNEA: Espiritu Santuak ze obra egin eban?

ERANZUEREA: Lau gauza: ta zuk obeto adietako onan.

ITAUNEA: Zeinzuk dita bada, edo zelan ziran?

ERANZUEREA I: Ama Birjineen odol gutxi bateti egin edo formadu eban gorputz bat.

ERANZUEREA II: Ezebere ezerik egin, edo kriatu eban Arima bat. Arimea, ta gorputza batu, edo unidu zituan; eta au da Gizatasuna. Arima, ta Gorputz ori instante atan bertan Semeen Personeagaz batu, edo unidu zituan; eta onan puntu atan Jesu Kristo Jangoiko, ta Gizon egiazko eginik geratu zan, edo Jangoikoen Semea gure aragiz iantzirik; eta Enkarñaziñoak ori berori, edo Gorputza artzea esan gura dau.

ITAUNEA: Mirarizko obra au, Espiritu Santuak legez, Aiteak eta Semeak egin ez eben?

ERANZUEREA: Bai, Jauna, eta irurak bardin.

ITAUNEA: Zegaiti esaten da bada, Espirituen graziak izan zela?

ERANZUEREA: Zerren amodiozko obrea izan zan, eta Amodioa Espiritu Santuari dagokan; Poderea Aiteari, eta Jakituria Semeari legez. Baia iru

Personak Jangoiko egiazko batek legez, Obra andi au egin beeben bere, Semeak bakarrik Gizonen naturalezca, edo izatea artu eban. Alan Semeak Izaitte, edo Naturalezca bi ditu: Jangoikoena bata, ta bestea Gizonena. Eta Aitak, ta Espiritu Santuak Jangoikoen Naturalezca baño ez dabe.

ITAUNEA: Eta Kristok zenbat entendimentu, ta borondate ditu?

ERANZUEREA: Entendimentu bi, ta borondate bi: bata Jangoikoena, eta bestea Gizonena.

ITAUNEA: Kristogan zenbat Persona dira?

ERANZUEREA: Bat bakarra, eta ori Jangoikoena.

ITAUNEA: Kristo Aitarik, edo Amarik badu?

ERANZUEREA: Jangoikoa danaz, dau Aita, zein dan Aita Eternoa, eta Amarik ez dau. Gizona danaz, dau Ama zein da Maria beti Birjinea, eta Aitarik ez dau.

ITAUNEA: Jesu Kristo Jangoiko danaz, ala Gizon danaz, lenago izan zan?

ERANZUEREA: Jangoiko danaz, lenago; bada beti izan zan. Baia Gizon danaz, beti izan etzan, ezpada denboraz; Jangoiko danaz, asierarik ez dau; eta denborak baño len beti beragan zan; baia Gizon danaz gero, esan dana legez, Gizon egin zan.

ITAUNEA: Jesu Kristo nun dago?

ERANZUEREA: Jangoiko danaz, beti leku guztian: Gizon danaz, leku guztian ez dago, ezpada Zeruan, ta Altareko Sakramentu Santuan bakarrik.

ALTARAKO SAKRAMENTU SANTUA, EDO UKARISTIA ZELAN DAN

ITAUNEA: Altarako Sakramentuan nor dago?

ERANZUEREA: Dago Jesu Kristo, Jangoiko, ta Gizon egiazkoa, Zeruan dagoana legez.

ITAUNEA: Ostian, konsagradu baño len zer dago?

ERANZUEREA: Ogi puska bat.

ITAUNEA: Eta konsagradu ezker, zer dago?

ERANZUEREA: Dago Kristoen Gorputza. Baia Gorputz bizia zelan dagan, ta Semeen Personeagaz batean, Ostian dago Kristoen odola, Arimea, Jangoikotasuna, ta Trinitadeko iru Personak batera.

ITAUNEA: Kalizan, konsagradu baño len, zer dago?

ERANZUEREA: Ardao puska bat, ur tanta bategaz.

ITAUNEA: Eta konsagradu ezker, zer dago?



ERANZUEREA: Dago Jesu Kristoen odola. Baia, Odol bizia zelan dagoan, Gorpuz ta Arimegaz dago, eta Jangoikotasun, edo iru Personakaz. Berba baten: Ostian Jesu Kristo guztia dago, eta Kalizan bere Jesu Kristo guztia.

ITAUNEA: Sakramentu onetan Jesu Kristo ikusten da?

ERANZUEREA: Ezta ikusten; ezpada ogien, ta ardaoen kolorea, ta beste akzidente, edo irudiak; baia konsagradu ezker, ogirik eta ardaorik Sakramentuan ezdago.

Ostia konsagraduen erdia, edo puska bat artuten dabena Jesu Kristo guztia artuten dau.

ERANZUEREA: Bai: dan guztia artuten dau, Kristo osoa, ta bizia; Ostien puskarik txikinenean bere Kristo guztia ainbat dago, zein Ostia osoan: eta Sazerdoteak Ostia erdi bi egiten dabenean, Kristoen Gorputza erdi biurten ez da; ezpada Parte txikian, andian legez, Jesu Kristo osoa beti geldietan da.

ITAUNEA: Zu ondo Komulgetako, zenbat gauza bear dira?

ERANZUEREA: Iru.

ITAUNEA: Zeinzuk dira?

ERANZUEREA: Zer artuten, edo errezibietan dozun, jakitea. Baraur naturala, edo ezer bere artu baga egotea. Jangoikoen grazian zu egotea.

PENITENZIAKO SAKRAMENTUA, EDO KONFESIÑO ONEN PARTEAK ZEINBAT, ETA ZELAN DIRAN

ITAUNEA: Sakramentu au zetan dago?

ERANZUEREA: Penitenteen Konfesiñoan, eta Sazerdoteen absoluziñoan.

ITAUNEA: Konfesiñoen parteak zeinbat dira?

ERANZUEREA: Iru, diño Trentoko Konzilio Sagraduak.

ITAUNEA: Penitenziaren iru Parte orrek zeinzuk dira?

ERANZUEREA: Kontriziñoa, Konfesiñoa, ta Satisfaziñoa. Batzuk, obeto esan bearraz, diño bost: Esaminea, Damua, Propositua, Konfesiñoa, eta Satisfaziñoa. Baia esaminea Konfesiñoan, ta Propositua Kontriziñoan sartuten eta adituten dira: eta ori Maisuak irakatsi bear dabe.

ITAUNEA: Konfesiño onen kondiziñoak zeinzuk dira?

ERANZUEREA: Berez iru. Berbaz edo, aozkoa izaita. Ixilik edo sekretoan egitea. Egiazkoa izatea. Onek kondiziñoak dira. Baia Kontriziñoa,

Konfesiñoa, ta Satisfaziñoa Penitenteen Aktoak dira, Konzilio Santuak diñoana legez, edo Sakramentu onen iru Parteak.

ITAUNEA: Konzienziako examina zer da?

ERANZUEREA: Egin dozuzan pekatuak ondo konfesateko, zure gogora, edo burura al eginaz ekarte.

ITAUNEA: Examina hau ondo egiteko, zeinbait denpora bear da?

ERANZUEREA: Denpora seinaladu edo jakinik ezta. Zelan dan bakotzen bizi modua, geia, edo kapazidada, ta burua: zeinbat denpora dan konfesadu artu bear dau, munduko egiteko andi batean legez, bere al egin Jau-nen grazia aurkituteko egin bear dau.

ITAUNEA: Esamen onetan bere pekatuak komutara zelan obeto batek ekarriko ditu?

ERANZUEREA: Jangoikoen legek, ta Elexako Mandamentuak sosiguz igaroz, ta orren kontra egin dituan pekatuak ikusiaz. Bere, ta besteren estadu, ta obligaziñoak ondo begiratu, ta zelan, ta zeinbat bidar, pensamentuz, berbaz, ta obraz, bere kontuak garbiro ataretako.

ITAUNEA: Konfesiñorako damua zelan, edo zer da?

ERANZUEREA: Jangoikoa ofendituaz biotzeko damuaria, ta pekatuen kontrako gorrotoa eukitea.

ITAUNEA: Biotzeko Damuari au zeinbat modutan da?

ERANZUEREA: Bitan: kontriziñoa, eta Atriziñoa.

ITAUNEA: Biotzeko Kontriziñoa zer da?

ERANZUEREA: Jangoikoa ofendiduazko damuaria, bere Ontasuna gaiti, ez beste gaiti, edo zerren Jangoikoa añ ona, ta añ Santua dan.

ITAUNEA: Biotzeko Atriziñoa zer da?

ERANZUEREA: Jangoikoa ofendiduazko damuaria, pekatuen ezaintasuna gaiti: edo zerren pekatuaz, Zeruko gloria galdu, ta infernua betiko merezidu, ta irabazten dan.

ITAUNEA: Damu bietarik onena zein da?

ERANZUEREA: Askozaz bere ohea da Kontriziñoa Atriziñoa baño, alde askotati, ta zegaiti Kontriziñoa konfesetako proposituaz daukanari, pekatu guztiak bertati, konfesadu bere baño lenago, parkatuten iakazan, ta Jangoikoen grazian geldietan dan, gero al dagianean, konfesetako obligaziñoa badau bere. Baia Atriziñoa, edo damu inperfektoa daukanari, pekatuak konfesiñoan baño parkaetan eziakaz.

Alan bekatar bi, bata Kontriziñoaz, bestea Atriziñoagaz, Konfesiño bage ilgo balira, lenengoa salbadu, ta bigarrena kondenaduko litzateke.



Agaitik pekatu mortalean dagoan bat, ilteko zorian Konfessore baga balego, Kontriziñozko Aktoa egiteko obligaziñoa dauko: eta zuk askotan Akto Kontriziñozko biotzetik egitera oitu, edo akostunbradu bear dozu.

ITAUNEA: Konfesiñorako Propositua zer da?

ERANZUEREA: Da biotzeko gogo firme eragilla bat, pekatuak ez geiago egiteko, eta pekatuen bide, eta okasiñoetatik apartetako.

ITAUNEA: Pekatuen bideti, al dagiala, apartetan ez danak, egiazko Propositu bear dana badauko?

ERANZUEREA: Ez, ezpada aozkoa, ta falsoa.

ITAUNEA: Pekatuen konfesiñoa zer da?

ERANZUEREA: Penitenteak bere pekatu mortal guztiak Konfessoreari, bear dan legez esatea.

ITAUNEA: Pekatu benialak konfesadu bear dira?

ERANZUEREA: Konfesetea ondo da, baia obligaziñorik ez dago.

ITAUNEA: Pekatu mortal bat, edo geiago konfesetea, bati aztuten baiako, orregaiti Konfesiño ori ona izango da?

ERANZUEREA: Ona da, bere kulpaz aztu ezpaitako; baia akordetan danean gero, orrek ondo konfesetako obligaziñoa dauko.

ITAUNEA: Pekatu mortal bat lotsaz konfesadu baga isten dabena, beste obra on, edo penitentiakaz salba leiteke?

ERANZUEREA: Ezin salba leiteke, Santu guziak baño penitencia andiagok eginda bere.

ITAUNEA: Lotsa andiko, ta ikaragarritzko pekatuz beterik Kristiñau bat aurkietan bada bere Erromara ioan baga, erremedioa bauko?

ERANZUEREA: Bai, ta seguru, ta txito erraz: Erromara bagarik, bere errian, edozein Konfessorek, guztien parkaziño osoa emongo deutso.

ITAUNEA: Konfessoreak salatu leike penitentea, edo Inkisiziñora akusadu, edo bestelan?

ERANZUEREA: Ez eta bizirik erreko balebe ere: konfesiñozko gauzarik sekula ezin esango leuke.

ITAUNEA: Beraz lotsaz Konfesiñoak pekatuak isteko bat bere atxakiarik inok eztauko?

ERANZUEREA: Ez, Jauna: ta ondo konfesetan ez dana, bere kulpaz, ta naiz kondenetan da.

ITAUNEA: Obrazko satisfaziñoa zer da?

ERANZUEREA: Pekatuak gaiti zor dan penea, penitentiako obra onakgatz pagetea.

ITAUNEA: Obrazko satisfaziño ori zetan dago?

ERANZUEREA: Konfessoreak emoniko penitencia artu, eta ori ondo kunplietan.

ITAUNEA: Kunplietako gogoaz penitencia artu, eta gero ori ez kunplidu agaiti, Konfesiño ona egiten da?

ERANZUEREA: Bai, Jauna ona da; Baia penitencia ori grabea, edo andia bazan, pekatu mortala da, ori ez egitea: eta onetan faltetan dabena, pekatu ori urrengo Konfesiñoan esan, edo akusadu bear dau.

Konziencia ondo esaminetako bide argi erraza, Euskerazko Ejerzizioetan, Konfessore, ta Penitenteentzat berariz luzaro emon dogu.

Konfesiñorako ondo prestatako lenago Jangoikoari bere argia eskatu egiozu, eta biotzetik esan:

ORAZIÑO

O neure Salbadore maitea! Neure pekatuen bide, ta bizitza galduti Zugana biurtu gura dot; zerren zure Ontasun, ta miseriakordeak dei egin, ta nakarren. Ona Jauna, bekatarik galdu bat, biotzeko damuz beterik, ta erremedioen billa zugana datorrena. Neure kulpaz, ta zure ofensa guztiak ezagutu, ta aborreziatoko zure argia bear dot. Konzienciako examina au ondo egiteko zure grazia indazu Konfesiño onetan bear dan damu, ta porposituaz zure amodio santua betiko izan dagidan. Amen.

Oraziño au egin, ta zure konziencian sartu, ta zeure barru guztiari ondo begiratu, ta esaminadu bear dozu.

Ama Birjineari, ta Santuari eska egiezu, pekatuak, direan legez, aurkietako argia, ta egiazko damu, ta propositua.

Konfesiño Jenerala deritxan Oraziñoa Elexa Santeak egunean ainbat bidar munduan Meza, ta errezu Santuetan egiten dan: eta errazoea da zuk bere emen modu onetan egitea.

Ni bekatarik au konfesetan naiako Jangoiko guziz poderosoari, Santa Maria beti Birjineari, San Migel Angeruari, San Joan Baptisteari, San Pedro, ta San Pablo Apostoluari, Santu guztiari, ta zeuri Aita Espiritual orri, zerren pekatu txito asko egin neban, pensamentuz, berbaz, ta obraz: neure erruz, neure erruz, neure erru txito andiaz. Agaiti erreguten deustas Santa Maria beti Birjineari, San Migel Angeruari, San Joan Baptisteari, San



Pedro, ta San Pablo Apostolui, Santu guztiai, ta zeuri Aita espiritual orri, erregutu dagizuela nigaiti geure Jaun, eta Jangoikoari. Amen.

Oraziño au konfesetan asi baño len egin oi da: ta alan bere zuk obeto egingo dozu lenago sosiguz zure biotzean, Kristoen oñetan, Madalena Santaen gisan, fede biziak iarten bazara, ta ak legezko damu, ta amodio andiaz, zuk zure gogoan daukazuzan pekatuak, Kristori konfesetan badeutsazuz.

Sakramentu au frutu andiaz artzeko, ta edozein Konfesoreen oñetan ondo beti konfesetako, txito asko lagunduko deutsu, lenago zeuregan pensaduak, ta zeure buruari onelan esanak.

Lenena. Konfesetara noa? Bai. Baia Kalbarioko mendian Jesu Kristoen odol preziosoagaz neure arimea garbietara. Ai Jauna! Zure odol tanta bat betor, ta neure pekatu guztiak parkaetako, ta neure arimea garbitu, ta salbaetako, ori dot asko, ori dot asko.

Bigarrena. Konfesetara noa? Bai. Baia Jesu Kristogaz, ta aen oñetan neure kulpak berari esatera. Ai, Jauna! Zuk, nik baño bere, obeto dakizu nire arimen barri. Zeinbat, eta zelan direan neure pekatu guztiak, Zuk obeto dakutsuz, Jauna.

Irugarrena. Konfesetara noa? Bai. Baia, ilteko zorian banengo legez. Ai Jauna! Baneki, nere ezkenengo Konfesiñoa au dala, zelan egingo neuke? Bada orain, gauz, ta beti, zure graziaz batera, Jauna, nik onan, ta ilteko legez, konfesadu gura dot, zure amodioan bizi, ta ilteko. Amen.

Konfesiñoa ondo egin, ta gero esazu:

ORAZINOA

O Neure Jaun amoroso, ta miserikordiazko Aita! Zure odol preziosoan neure arimea bere kulpen loietati garbitu gura izan dozu! Zuri eskerak, Jauna, zerren pekatuen eriotzati libradu, ta Zeruko bizitzea emon deustazun. Ez, neure Jesus, geiagoren geiago pekatuati leku edo ostaturik neure biotzean. Zure amodiozko biziera onetan neure arimea sendoago iarri dedin, orain zure Komunioko Sakramentu adoragarrian Zeu ondo artzeko, indazu grazia. Amen.

KOMULGADU BAÑO LENAGO ESATEKO

ORAZIÑO

O neure Jesus, Zeruko Erregea, ta arimen Jabea! Bada zure Ondasun andiaz, neure arimako ostatu pobre onetara etorri gura dozu. Betoz Jauna, lenago, zeure Espiritu Santuen doea, ta grazia guztiak, Zeuri iagotzun iarlekua prestetako. O Jauna! Ta Santu guztien suz ta garrezko gogo erasegiak, Angeruen garbitasunagaz. Zu ondo artzeko, nok litukean! Eta orain, bear dan legez Komulgetako, Ama Birjineen amodio, ta birtuteak bere biotzean nok litukean!

Komulgetako Sazerdoteak *non fum dignus*, esaten dabenean, zuk zuk bere iru bidar esazu.

«Jauna: ez nas ni diña, edo digno Zu neure etxe, edo biotzean sartzeko; baia esazu berba bat, eta neure arimea salbatuko da».

Komuniñoa artu, ta leku on baten sosiguz iarri; zeure biotzera biurtu, eta or sartu dan Jaun andiari esango diozu.

ORAZIÑO

Jaun Soberano, Sakramentu onetan ni bisitetan Zeruti etorri zareana: Nundi, edo zelan niri onenbeste ditxa? O neure Jangoiko egiazko! Osti konsagradu onetan Jesus maiteen Gorputzean ezkutadua! O amodiozko Ontasuna! O ondasunez beteriko amodioa! Ondo etorria zareala, neure Jaun, ta Jabe bakarra. Zu zara neure guztia: nik ber guztiz zurea izan gura dot. Orretarako bertati betiko, neure arima, gorputz, ta ni nasan, ta nik al dagidan guztia aginduten deutsut: Zu bakarrik serbidu, ta ametako: Zure borondatea orain, ta beti gauza guzietan egiteko. Ai ze ditxea, Zu neurea, ta ni zeurea izatea! Indazu arren, zuere Santuai legez zeure amodio andi bat, eta orregaz betiko aberats, ta kontentu nas zeure grazian. Amen.

«Emen, edo orain da denporea, zeure Jaunari eskaetako zeretzat, ta besteentzat bear dozun ta gura dozun guztia».

FEDE, ESPERANZA, ETA KARIDADEKO AKTOAK EGUNEAN EGUNEANGO EGITEKO



Alan bizitzan nolan eriotzan gauza txito bearrak, eta irabazi andikoak dira.

Sinisetan dot Aita Jangoikoagan.

Sinisetan dot aen Seme Jangoikoagan.

Sinisetan dot Espiritu Santu Jangoikoagan.

Sinisetan dot Jangoiko egiazko bakar batean, eta iru Persona distinto, edo bana Jangoiko batean direanak.

Sinisetan dot Jangoikoen Seme bigarren Personea Birjina Amaen sabek garbian Espicitu Santuen graziaz Gizon egin, ta jaio zala, eta gu salbateagaiti KURutzean ill, ta biztu, eta Zerura igo ebal.

Sinisetan dot, Jaun au azkeneko juizioan, biziak eta illak juzgetara etorriko dala: eta Justuai betiko Gloria, eta gestoai betiko infernua emongo deustela.

Sinisetan dot Elexa Santan geure salbaziñorako Sakramentuak Kristot utxi zituala, ta Altarako Santisimo Sakramentuan Jesu Kristo Zeruan legez dagoala.

Gauza onek, eta Elexa Ama Santeak aginduten deustan guztia nik sinisetan dot: eta Fede onetan beti bizi, ta ill gura dot.

Esperetan dot Aita Jangoikoagan.

Esperetan dot Seme Jangoikoagan.

Esperetan dot Espiritu Santu Jangoikoagan.

Esperetan dot Jaunen miserikordian, eta neure Jeus onen Odol preziosoan, neure pekatuak parkatuko deustazala, ta pentenzia, ta obra onak bere grazia, ta gero bere gloria emongo deustala.

Amaetan dot Aita Jangoikoa.

Amaetan dot aen Seme Jangoikoa.

Amaetan dot Espiritu Santu Jangoikoa.

Zu neure Jaun, eta Jangoiko guztiz ona amaetan zaitut neure arima, ta biotz guztiti, neure indar, ta al egin guztiaz gauza guztien ganean, eta direan guztiak baño geiago.

Neure kulpa, ta zeure ofensa guztiaz damudot, Jauna, Zu zareana gaiti; zerren añ ona zarean, ta amodio guztien diña. Zu ofendituaz damu dot, propositu firmeagaz, Zu ez geiago ofendietako.

Santu, ta Angeru guztien, eta Ama Birjineen zukanako amodio guztia gura neuke, aek legez Zu beti amaetako, orain lurrean eta gero zeruko glorian. Amen.

GOXEAN OETI IAGI, TA BERTATI JANGOIKOARI FEDEZ BEGIRATU, ZEÑATU, TA EGUN ATAKO ZEURE OBRAK OFREZIETAKO ORAZIÑOIA

Neure Jangoikoa: graziak, eta alabanzak emaiten deustudaz, zerren egun onetara, Zeu serbietako, ekarri nozun, infernua egotea nik merezi nebala. *Pater nosterra*, ta *Abe Maria*.

Gaurko neure pensamentu, berba, ta obra guztiak ofrezietan deustudaz, neure Jesus onaen odol preziosoagaz batera, zeure gloriarik andienako. *Pater nosterra*, ta *Abe Maria*.

Damu dot Jauna, neure pekatu guztiak gaiti, zerren amaetan zaitudan gauza guztien ganean, propositu firmeaz, zeure graziaz batera, Zeu ez geiago ofendietek; batez bere onango pekatu geien arrastaetan nabean. Gaur direan Induljenziak neure pekatuen satisfaziñoan, ta Purgatorio arimen sufrajioan, Zeuk gura dozun legez, irabazteko intenziñoa, egiten dot. *Pater nosterra*, ta *Abe Maria*.

Indazu, Jauna, onetarako bear dodan zeure grazia. Neure Bitarteko Santu, S N ta N lagun zakidaz neure berba, ta propositu au gaur, ta beti ondo gorde dagidan.

Neure Ama Birjina Santisimea: zeure Konzepziño garbia gaiti, tentaziño guztietan aparadu nagizu: eta gaur, ta beti garbi gorde nagizu: *Iru Abe Maria*, ta *Kredo bat*.

Ama Birjineari egunean onan eskatu egiozu. Iru Abe Maria orrek ez iños bere itxi esan egizuz beti aen lenengo, ta azkenengo Misterio bien ize-nean. Orrek dira aen Sortute garbia edo Konzepziñoa, ta aen Doloreak.

Pauso onekaz gure jenteak deboziño txito andia dabe: eta Elexa geienetan ikusten dira. Geure Erregek igaz Aita Santuen bendiziño, ta Induljenziakgaz España guztian Maria Santisima bere Konzepziño garbian Patronatzat artu dau.

IRU ABE MARIAK

Goxean, egu erdian, ta arratsean belauniko erreza, eta Induljenziak irabazteko. Elexeak Latinez diñoana bera, Euskeraz zuk onantxe esazu.



I. *Angelus Domini*. Angeruak barri onak Maria Birjineari emon, eta Espiritu Santuen graziaz Seme bere sabelan artu eban. *Abe Maria*.

II. *Ecce Ancilla*. Ona Jaunen Esklabea, zeure berbeaz batera nigan egin bedi. *Abe Maria*.

III. *Et Verbum caro*. Jangoikoen Semea Gizon egin zan, eta gure artean bizi izan zan. *Abe Maria*.

Jangoikoen Ama Santea gu gaiti erregutu egizu.

KRISTOEN PROMESEN DIÑA EGIN GAITEAN ORAZIÑO

Iguzu arren, Jauna, gere arimetan zeure grazia; Angeruak barri onak ekarri, eta Kristo zeure Semeen Enkarnaziñoa ezagutu dogunok, aen Pasiño ta Kurutze agati Erresurreziñoako gloriara eroanak izan gaitean. Amen.

BOST ALTARETAN ERREZADU, TA BULDEN INDULJENZIAK IRABAZTEKO, ORAZIÑO

Miserikordia, ta konsuelo guztien Aita Jangoikoa, zeure Semeen Odol preziosoaz geure arimak garbitu, ta ondasunez betetan dituzuna! Geure kulpen satisfaziñoan, ta Purgatorioko arimen sufrajioan, Bulden Ildunjenzia, gaur direanak, irabazi gura dituguz Altaren Oraziño au, Zure Semeen intenziño, ta amodioaz batera ofrezietan deusugu. Ondasun orrek irabazteko, zeure Ontasunari erregututen deusagu, Elexa Ama Santen ditxazko estadia gaiti begiratu dagiala; zeure fedea munduari agertuaz: Prinzipe Kristiñau guztiai euren arteko bakea emonaz: hereje, ta infielen indarrak deseginaz: zeure Seme Jesu Kristo gure Jauna gaiti. Amen.

Oraziño au sosiguz egin, eta zuk bakarrik Altarak errezetan badituzu, Altara bakotxean esazu esola bere Pater noster bi. Abe Maria bi, ta Gloria Patri bi.

MAIA BEDEINKETAKO, ORAZIÑO

Elexa Santeak berarizko Oraziñoak ditu. Geure Nekazale, ta baserri jente onak, alan Maia bedeinketako, zelan beste obra onak asteko, Pater noster bat deboziñoaz esate baño Oraziño oberik ezin egin leikee.

Jesu Kristok ber Aitari gu gaiti ta guri erakusteko egina da Pater nostra. Oraziñorik Jangoikoaganako ederrena, ta gugango onena au da. Onetan Jangoikoa alabetan, eta bedeinketan da, ta geuretzat behar dogun guztia emen eskatuten da.

Alanbere Elexen legez Maia bedeinketea gurago bozu, modu onetan esazu;

«Aitearen, ta Semearen, ta Espiritu Santuen Izenean. Amen.

»Jauna: gure esperanzea zugar dago, ta iateko bear dana, Zuk bere denporan emaiten dozu. Zeure eskua zabaldu, ta guztiok bendiziñoaz beteetan gaituzu. Pater noster».

AITA GUREA ESAN, ETA GEROZ

«Doe guztien emalla, guere Jauna! Zure eskuti guk artu, ta ian bear dogun guztia bedeinkatu egizu, Jesu Kristo zeure Seme agaiti: eta bere izenean Aita, eta Semeak, eta Espiritu Santuak guztiok bedeinka gagizala, eta bere gloriako Maira betiko eroan gagizala. Amen».

IAN EZKERO GRAZIAK EMAITEKO, ORAZIÑO

Aitearen, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren Izenean. Amen. Graziak, eta alabanzak emaiten deusuguz, Jauna, orain, ta beti egin deusku-zuzan on guztiak gaiti. zugarik gure ganera etorri dan bendiziño, ta mese-de onegaiti mundu guztiak beti alaba zaitzala. Amen, *Pater noster*.

AITA GUREA ERREZADU, TA GERO ESASU: ORAZIÑO



Geure Ongin guztiai, Jauna, pagadu eiezu zeure Izen santu agaiti, eta arima Fiel guztiak, zeu alabactara Zerura eroazuz.

AITA GUREA ESAN, TA GERO:

Arima Fiel guztiai Jangoikoak betiko deskansua diela, eta guri bere bakea digula. emen batu gaituan Jaunak berak Zeruko glorian guztiok batu gaitzala. Amen.

Kontriziñoako Aktoa deritxan Oraziño iakina guztientzat gauza txito balio andikoa da. Biotzeti, bear dan legez, egiten bada; Damuari edo garbaia, eta Proposituaz osterunzean, Fede, Esperanza, karidade, edo Amodiozko, eta Humildade, Konfianza, ta eskari, edo Oraziñoen akto ta afektorik nobleen, ta bearrenak Kontriziñoako Akto, edo Oraziño onetan egiten dira.

Zeure pekatuen parkaziñoa, eta Zeruko ondasun andi asko zuk erraz irabazteko, Jaunen graziaz batera, gau, ta egun, al egin guztiaz askotan egizun onan;

Neure Jesu Kristo Jauna, Jangoiko, ta Gizon egiazkoa, neure Kriadore, ta Erredentorea: izanik zu zareana, eta amaetan zaitudalako gauza guztien ganean; damu dot, Jauna, damu dot biotz guztiti zeu ofendituaz, propositu firmeagaz ez geiago ofendietako, eta pekatuen bide guztietati apartetako, konfesetako, eta emaiten deusten penitentzia egiteko. Ofrezietan deusut neure bizitza, obrak, eta nekeak neure pekatuen satisfaziñoan, eta erreguten deusudana legez, itxadoten dot zeure Ontasun, ta Misericordia fin bagakoan, parkatuko deustazuzala zeure Odol prezioso, Pasiño, ta Eriotze agaiti, eta emongo deustazula grazia emendetako, eta Zu serbietan irauteko, neure eriotzako ordugiño. Amen.

Meza erasotea, Ama Birjineen Letañak eta beste orrelangoak Erderazko Dotrinetan obeto datoz, edo emen bear ezdira. Baia

bizkaitarrentzat urrengo abisoa bear da

Ba dakust ondo, Bizkai guztiko Euskera bat izan arren, berbaren batzuk ori batzuetan, besteak beste eran oi direala. Enzunaz ikusi, edo

ikasi dot, Orozko, ta Zeberioti Otxandianora, ta Plenzia, eta Matxitxako aldeti Mungiarra, ta onuntz Berba batzuk, edo esateko moduak banaro, edo diferenteak dituezala. Baia Señorioko beste leku zabal andi, eta bazterretan bere ainbeste Euskaldun euren modura nik askotan enzun, eta diranak gustoz adietan nituan.

Onetara bat bereala, edo lenengoan egiten ezta; baia bearrak eragiten dau. Durango, ta Markinati onunz beste modurik da; baia orrek ezerebere esan gura ez dau. Alan Bizkaitar guztiendako ainbat da *sartzea* edo *sartutea*, *artzea* edo *artutea*, *agertzea* edo *agertutea*, eta orrelan besteak: *guztia* edo *guztia*, *zeure*, *zure*, *geure* edo *gure*, *Galdea*, *Itanna*, edo *Itandea*. *Era*, *gisa modua* emen esaten dogu, eta Bizkaian, *legez*: *zuen gisan*, *zuen* edo *zuek legez*. *Zerren*, edo *zeren*. Laburrena nik eskribietan dot; baia bakotxak bere erriko legez irakurri, esan, edo pronunziadu bear dau.

Erri guztietako modura, ta guzien gustora Libru batean eskribitzea, ezin izango da gauza da.